

**HERRI ARDURALARITZAREN EUSKAL ERAKUNDEAREN
(IVAP) 40. URTEURRENA OSPATZEKO EKITALDIA
ACTO DE CELEBRACIÓN DEL 40 ANIVERSARIO DEL
INSTITUTO VASCO DE ADMINISTRACIÓN PÚBLICA (IVAP)**

2023-03-01 Bilbao 01-03-2023

Lehendakariaren hitzaldia – Discurso del Lehendakari

Eusko Legebiltzar buru andrea, Sailburuok, eta baita Eusko Jaurlaritza ordezkaten dugun eta IVAP-en zuzendari orokorrarekin herri arduralaritzaren euskal erakundearen zuzendari orokorrarekin batera zaudeten, Bizkaiko Batzar Nagusietako burua, Arartekoa, baita Bizkaiko Foru Ahaldundiko Diputatua eta beste herri ordezkari gizataldeetako ordezkariok, Deusto Unibertsitateko errektore jauna, zaudeten herri agintari eta herri ordezkari guztiok, jaun andreok, egun on!

Zorionak emateko eguna da gaurkoa: IVAP-ek 40 urte bete ditu zerbitzu efiziente, kalitatezkoa eta elebiduna emanaz; eta euskal administrazioa abangoardian jarritz.

Hasierako egun horiek ez ziren errazak izan. Administrazio Publikoa martxan jarri beharra zegoen eta baliabideak oso mugatuak ziren. Baina garai hartako langileek ezaugarri bat partekatzen zuten: ilusioa eta konpromezua; lehen mailako Euskal Administrazio Publiko bat sortu eta erreferentziazkoa bilakatzeko gogoia.

Duela 40 urte, Lakuan sartu eta, kasu askotan, etxetik ekarritako makinekin lanean hasi ziren aitzindari horiek. Eta, oso denbora gutxian, helburua lortu zuten. Eskerrik asko, benetan, herri honekiko eta sortu berriak ziren erakundeekiko erakutsitako konpromisoagatik.

El germen del actual IVAP comenzó a dar sus primeros pasos en 1979, por decisión del entonces Consejo General de Euskadi. Su misión era atender las necesidades de formación del personal de la Administración Pública.

La Ley 16/1983 dotó al IVAP de personalidad jurídica. Lo hizo en un momento clave porque se comenzaron a asumir muchísimas competencias y se creó la estructura administrativa, prácticamente desde cero.

El papel del IVAP fue clave. Su afianzamiento legal venía a coincidir con la recuperación de nuestro Autogobierno y el nacimiento de la nueva

Administración, dando respuesta, entre otras, a las necesidades de selección y formación de personal.

Hasierako zailtasun guztiei beste erronka bat gehitu zitzaion. Izan ere, lehen aldiz, eta urteetako eskariari erantzuna emanez, euskara hizkuntza ofiziala bihurtu zen Euskadin. Horrek zuzeneko eragina izango zuen gure administrazio gaztean. Oso denbora gutxian, administrazioa bere zerbitzua euskaraz ere eskaintzen hasi behar izan zen, herritarren eskariari erantzuna emanez.

Lortu zuen. Denbora errekorrean lortu ere.

El IVAP asumió estos retos y los enfrentó con éxito.

Compromiso, imaginación y entusiasmo hicieron posible sentar las bases de la estructura del Gobierno Vasco que hoy conocemos: una institución valorada por la ciudadanía.

En el día de hoy compartimos un sentimiento de orgullo por el camino recorrido por el IVAP. Sirva este acto para reconocer y agradecer el compromiso de las y de los cientos de profesionales y responsables que han trabajado a lo largo de estas cuatro décadas y lo siguen haciendo en la actualidad.

IVAP-ek beste erronka bati erantzun behar izan dio urte hauetan: zerbitzua garai berrietara egokitzea, administrazioa XXIgarren mendera moldatuz.

Etorkizunean beharizan berriak ere sortuko dira, eta Administrazioak profil berriak, askotarikoak, behar izango ditu gizarteak gudan jartzen dituen eskariei erantzuteko.

Hor egongo da IVAP-en ardura. Hautaketa eta prestakuntza egokia bermatu beharko du.

Kapaz izan beharko da euskal gizarteak sortzen duen talentua, hein handi batean, Administrazio Publikora erakartzeko, eta bertan daudenean, behar duten etengabeko hobekuntza aukerak eskaintzeko.

Oso aldakorra den gizarte batean, malgutasunez erantzungo duten langile publikoak behar ditugu; egoera desberdinetara egokitzeko gai izango direnak; eta premiei arin, eraginkor eta berme juridiko osoarekin erantzungo dutenak.

Gure konpromisoa dugun exijentziaren maila berean erantzutea izan behar da. Hau da, 1983garren urteko lehen langileek egin zuten bezala; IVAP-ek egin zuen bezala.

Ziur nago, IVAP-en eskutik, bikain erantzuten jarraituko dugula.

Gaurko honetan zorionak eta urte askotarako!

Eskerrik asko!